

Atletismoa

Sinboloaren indarra

Cathy Freeman Australia osoaren heroi bihurtu izana baikortasunez hartu du komunitate aborigenak

Imanol Murua Uria / Sydney
berriemaile berezia



Cathy Freeman, herenengun, olinpiar estadioan, aborigenen banderarekin —Australiakoa ere bazuen—, 400 metroetako finala irabazi ondoren.

Kevin Buzzacot • LIDER ABORIGENA •

«Cathy ez dugu presionatu behar»

KEVIN BUZZACOT Olinpiar Jokoak hasi baino egun batzuk lehenago heldu zen Sydneyra, Hego Australiako Lake Eyretik oinez etorruta: hiru mila kilometro egin ditu oinez, *Antzinako eskubideen, bakearen eta zauriak ixtearen aldeko Lurraren Ibilaldian*. Lake Eyreko aborigenen liderra da *Uncle Kevin* —Osaba Kevin— eta, Sydneyko Enbaxada Aborigenaren kanpamentuan dagoenetik, bertako bozeramaileetako bat.

■ **Zergatik da garrantzitsua Cathy Freemanen garai-pen hau, baldin eta garrantzitsua bada?**

Cathy Freeman gure tarteakoa da, eta berak egiten duen guztiak —eta ez berak soilik, atleta aborigen gehiago ere badira eta— gu munduaren begietan jartzen gaitu, gure borroka munduarengana eramaten du. Cathyri begira izan gara, Cathyrekin gaude,

bere bide osoan bera sostengatzen izan gara. Bagenekien irabaziko zuela, eta garaipena ederra izan zen. Handia izan zen Olinpiar Jokoen hasiera ere bai. Aurrekoan, Atlantan, Mohammed Alik piztu zuen su olinpikoa, eta oraingoan Cathyk egin du, eta horrek berari buruz asko esaten du. Dena dela, jendek asko eskatu dio Cathyri, eta gehiegizko presioa jasan du. Berak badaki zer nahi duen, eta berak erabakiko du zer sostengatu nahi duen. Australiako Gobernuak ere ez luke presiorik egin behar. Sentitzen duena egin dezan utzi behar zaio. Ona da Cathy, handia da.

■ **Australia zuriak ere heroi-tzat hartu duelarik, ho-**

**rrek eragin al dezake zuri-
rien jarretan, aborige-
nekiko jarretan?**

Aldaketa asko eragin ditza-
ke Cathyk, baina lan guztia ez
dago noski Cathyren esku.
Lan handia dugu: gaitz asko
ditugu, zauri asko ditugu
sendatzeko, arazo asko konpon-
tzeko. Cathyk paper handia
joka dezake gauzak aldatzen
laguntzeko, baina, esan
dudan moduan, Cathy ez
dugu presionatu nahi.

■ **Adiskidetzeari buruzko pausotzat jo da
egunotan Freemanek
olinpiar sua piztea, eta
400etako urrea australiar
guztiekin bere egitea.**

Ez dute herri aborigena gel-
diaraziko. Hau gure herria
da, antzinako herria gara, lur
honen parte gara, gure gober-

nuak ditugu. Eta hemengo
Gobernu berriari ulerrarazi
nahiko nioketena hau da:
Cathyren karisma erabil eza-
zue bakegintzarako. Etorri
guregana, hizketan hasi eta
bakeak egin dezagun, etorki-
zun hobe baterantz jotzeko.
Munduarentzat eredu izan
gaitezke, gure artean bakea
den artean. Bake gosea dugu,
munduak bakerako gosea
du. Egin dezagun ahalegina.

■ **Australiako bandera eta
aborigenena, biak batera
haizatu zituen Freeman-
ek astelehenean...**

Uste dut bi banderak era-
kutsi beste aukerarik ez zue-
la. Maila batean, aurreneko
mailan, ondo dago, baina guk
bandera bat ikusi nahiko ge-
nuke: gurea. Baina hori egi-
nez gero Cathyk presio han-
dia jasango zuen. Gaur egun-
go egoeran nahikoa da, ondo
dago hori. Egun ezin dugu
hori baino gehiago espero.

«CATHY maite dut, denok mai-
te dugu Cathy», esan zigun
atzo Gordon Bell-ek, 64 urte-
ko aborigenak, Redfern auzo-
ko osasun zerbitzuen egoitza-
ko atarian. Bandera gorri-
beltz-horiak adierazten zuen
aborigenentzako osasun etxea
dela, eta inguruetako grafiti
ugariek aborigenen gunea de-
la Redfern —«40.000 urte, ur-
te asko dira», «itun bat behar
dugu»...—. Apurtutako leihoe-
kiko etxe txiroek eta kale baz-
ter narratsek adierazten dute,
era berean, Sydneyko hirigu-
netik oso hurbil egon arren hi-
riguneko aberastasunetik oso
urruti dagoela Redfern.

Cathy Freeman atleta abori-
genak 400 metroetan urrea
irabazi eta biharamunean
Redfern auzoko egoera bezpe-
rakoa bezain txarra zen, baina
jendearen animoan ezagun
zen Freemanen garaipenak
esanahi berezia izan zuela.
«Izugarria! Ederra! Oso pozik
gaude», zen atzo erantzun na-
gusia inori galdetuz gero

Les Beckett, 48 urtekoa, au-
tobusaren zain zegoen. «Lor-
pen handia da, batez ere kon-
tuan hartuta zer presio jasan
duen. Garrantzitsua iruditzen
zait, emakume gazte aborige-
nentzat eredu izan daiteke-
lako». Irabazi ostean bandera
aborigena erakutsi izana,
Australiakorekin batera era-
kutsi arren, garrantzitsua
izan zen. «Bandera aborigena
gure kultura biziaren sinboloa
da, espiritu aborigena gure
bihotzean bizirik dela adieraz-
ten du, eta hori zuri askok ez
dute errekonozitzen».

Seven telebistako kazetari
Ernie Dingorentzat «sinboloa
da garrantzitsua»: «Cathyk
beretzat irabazi du, berak egin
ditu merezimenduak, eta bere
familiari eskaini dio garaipe-
na. Baina gure komunitatea-
rentzat, komunitate osoaren-
tzat, esanahi handia du. Jen-
dea hunkituta dago».

Bob Gould liburu saltzailea
ez da aborigena, jatorri irlan-
darrekoa baizik, baina urru-
neko arbaso bat aborigena
duela uste du. «Orain, Free-
manen balentriarekin, biztan-
lerien %30ek esango dute abo-
rigenak direla...», zioen txan-
txetan. «Baina belaunaldietan
atzera egiten badugu, egia da
askok odol aborigena dugula.
Aurreneko kolonoak, gehie-
nak presoak izanik, gizonez-
koak ziren, eta emakume bila
aborigenengana jotzen zuten.
Aitortu gabeko sustrai abori-
gen asko dago. Gure historia-
ren parte ezkutua da». Olin-
piar Jokoein, Goulden iritziz,
aldaketa bat ari da gertatzen